



Gaizka Vicente Urkizu (\*)

**D**E la mano de Gaizka Vicente Urkizu, se nos sugieren unas interesantes y poco habituales excursiones a las cimas más elevadas de Corea del Sur, visitando simultáneamente los parques naturales más sobresalientes del país, algunos de ellos declarados por la UNESCO reservas de la biosfera. Con precisión matemática, Gaizka nos describe sus andanzas por los parques de Seoraksan, Jirisan y Hallasan. Este último, se sitúa en la isla de Jejudo, al sur de la península de Corea, y alberga la cima más elevada del país, con 1950 m de altitud. Los itinerarios descritos pueden llevarse a cabo sin necesidad de una planificación o equipamiento extraordinario, utilizando simplemente los servicios que los parques tienen puestos a disposición de sus visitantes, así como los abundantes transportes públicos, cuya referencia se facilita en las fichas técnicas correspondientes a cada excursión.



# Hego Koreako hiru handiak

■ Seoraksan parke naturala



■ Sinheungsa tenplua Seoraksan parke naturalean

## ■ SEORAKSAN PARKE NATURALA

Mendi-izena Seolsan edo Seolbongsan ere ikus daiteke idatzirik. Parke naturaleko mendilerroek Seoraksan izena hartu dute ('mendi handi elurtua'), alde batetik elur goiztiarrak denbora luze urtu barik egoten direlako eta, bestetik, arroka granitikoaren kolorea zuria delako. 1982ko abuztuan UNESCO erakundeak biosferaren erreserba deklaratu zuen. Hego Koreako lau distritotan kokatua dago: Sokcho, Inje, Goseong eta Yangyang. Hango punturik gorena Daecheongbong mendia da, 1706 m-koa, Hego Koreako hirugarren mendia.

Parkeak 400 km<sup>2</sup> ditu eta Hego Koreako ipar-ekialdean dago, Ipar Koreako mugatik oso gertu. Hiru ataletan banatuta dago: ekialdeko sarrera (Outer Seorak edo Seorak-dong), mendebaldekoa (Inner Seorak) eta hegoaldekoa (Southern Seorak edo Osaek).

### Ulsan Bawi (873 m)

#### FITXA TEKNIKOA

**Ibilbidea:** Zirkularra.

**Abiapuntua eta amaiera:** Seroak-dong (147 m).

**Desnibela:** 750 m.

**Igoerarako denbora eta luzera:** 2 ordu; 4,3 km.

Harkaitz honek Cheonusan izena ere hartzen du zenbaitetan, ekaitza dakarrenean euriak eta trumoiek egiten duten zaratak mendiaren negarraren antza hartzen duelako. Seorak-dong parkeko sarreratik ordu bi behar izango ditut tontorra zapaltzeko. Ibilbidea oso ondo markatuta dago eta iparreko norabidea segitzen du. Hirurehun metroko desnibela gairatutakoan, harkaitzaren barruan eraikitako *Gyeojoam* tenplu budistarekin egiten dut topo. Hemendik, helmuga dudana Ulsan Bawi arroka ikuspegi zuzena dut. Asia osoko

**A**SPALDIKO asmoa abuztu honetan egia bihurtuta, Hego Koreako zenbait Parke Naturetan trekking-a egiteko aukera izan dut. Horrela, denbora luzea pentsatu barik eta Seulen abiapuntua hartuta, hango naturaren ikono diren hiru altuera nagusiak igotzeko saioa egin dut, baita lortu ere. Iparraldetik hegoalderako hurrenkera segiturik, honako mendi igoera hauek burutu ditut...



- Seoraksan parke naturalean, Ulsan Bawi (873 m) eta Daecheonbong mendia (1706 m), azken hau Hego Koreako hirugarren altuera.
- Jirisan parke naturalean, Cheonwangbong mendia (1915 m), Hego Koreako bigarren altuera.
- Hallasan parke naturalean, Hallasan mendia (1950 m), Hego Koreako mendirik altuena.

Igoerak 2011ko abuztuan burutu dira. Sasoi honetan eguraldia euritsua izan ohi da eta giroko hezetasuna oso altua, ia % 80koa. Ibilbide errazak dira guztiak, baina gogor samarrak, fisikoki ondo prestatutako ibiltarientzat.

(\*) Gaizka Vicente Urkizu Bilbon jaioa da 1968an.

Matematiketan lizentziatua, helduen hezitzaile bezala ari da lanean. Mendiari dagokionez, Euskal Herriko gailurrik esanguratsuenetan, Espainia osoko mendilerroetako altuera nagusietan, Frantzia eta Suitzako Alpeetan, Hego Amerikako Andeetako batzuetan, Afrikako Atlasean, Japoniako Fujiyaman eta Iraneko Damaband sumendian hartu du eskarmentua.





granitozko harkaitzik handiena da. Desnibeleko azken hirurehun metroak gainditzeko, eta zenbait zatitan, arrokaren pitzadura batean zehar, burdinezko pasarela luze baten laguntzaz egiten dut aurrera, tarte batzuetan oso aldapatsua dena.

Mendiaren goialdea granitozko sei harkaitzez osatua dago. Puntu gorenera heldutakoan, izugarriko ikuspegiak dauden behatoki ederra dago: alde batetik eta ekialdera, Japoniako itsasoa; beste aldetik eta mendebaldera, Seorak mendia; iparraldean Ipar Koreako mugako ikuspegiak.

■ Ulsan Bawi harkaitzaren arrakalako pasarelan sartu orduko, Seoraksan parke naturalean

## Daecheongbong (1706 m)

### FITXA TEKNIKOIA

**Ibilbidea:** Ez da zirkularra. 17 km-ko luzera, bi etapatan burutua.

- 1. etapa:** **Abiapuntua:** Seorak-dong (147 m).  
**Amaiera:** Jungcheong aterpea (1603 m).  
**Desnibela:** 1450 m.  
**Denbora eta luzera:** 6 ordu 30 min.; 11 km.
- 2. etapa:** **Abiapuntua:** Jungcheong aterpea (1603 m).  
**Amaiera:** Osaek (250 m).  
**Desnibela:** 100 m gora eta 1300 m behera.  
**Denbora eta luzera:** 3 ordu 30 min.; 6 km.

**1. ETAPA:** Seorak-dong parkeko sarrera erosi eta mendebalderako norabidea hartzen dut. Bidea oso ondo markatuta dago ibilbide osoan. Hamar minututan lehen bifurkaziara heltzen naiz. Iparrera doan Ulsan Bawi arrokarako bidea alde batera utzita, nik mendebalderako Cheonbuldong ibarreko sarrerara doana hartzen dut. Hasierako kilometroetan bidea nahiko laua da eta parkeko zerbitzu asko topatzen ditut. Hiru kilometro ibili ondoren, Biseondae puntu panoramikora heltzen naiz eta hemen hamar minutuko atsedenaldi bat hartzen dut. Waseondae mendi erreka zeharkatzen duen 50 m-ko burdinezko zubitik ur jauziak, putzuak eta eskaladarako harkaitzen ikuspegi ederrak gozatzen ditut. Hemendik, Cheonbuldong ibarrean barrena progresioa zaildu egiten da eta burdinezko pasarela asko gainditu behar dira. Biseondaetik Yangpok aterpera 3,5 km daude eta hona heldutakoan, 30 minutuko atsedenaldi bat hartzen dut zer edo zer jateko. 2 km



daude aterpe honetatik hurrengora, Huiungak izenekoa. Tarte honetan aldapa gogortu egiten da eta azkar gainditzen dut desnibela. Azken aterpe honetan, 15 minutuko atsedendia hartu eta bideari ekiten diot berriro ere. Socheongbong mendiko 1664 m-ko kota lortu arte, 1,6 km ibili behar ditut, aldapa gogorrean gora. Orain, ordea, behera joan eta 50 metro galdu behar ditut neure gaurko helmuga den Jungcheong aterpera heltzeko, gaua hemen pasatuko baitut. Jungcheong aterpetik 100 m-ko desnibela besterik ez dago Daecheonbong mendiko tontorrera heltzeko. Biharko etapan, Seoraksan parke naturaleko puntu gorenera igo eta hegoalderantz jaitsiko naiz, Seorak parkeko beste sarrerara heldu arte.

**2. ETAPA:** Aterpean gaua egin eta gero, goizeko 6etan bideari ekin eta 20 minututan tontorra zapaltzen dut. Haizea oso gogorra da eta lainotuta dago guztiz. Hemendik, eta jaitiera arinean, hegoalderako bidea jarraiturik 3 orduko eta 5 km-ko ibilbidea burutzen dut, parkeko hegoaldeko sarrerara heltzeko. Sarreratik, Osaek herrira joaten naiz, azken hau oso famatua bere *Hot Springs* direlako.

## ■ JIRISAN PARKE NATURALA

Jirisan mendia Cheonwangbong izenaz ere da ezaguna. Hego Koreako bigarrena da eta 1915 m-ko altuera du. Mendi honen izenaren esanahia honako hau da: 'bere baitan bizi den oro jakintsu izango da'. Antzina, barneko



bake espirituala eskuratzeko helmuga garrantzitsua izan zelako.

Jirisan parke naturala Hego Koreako handienetarikoa da tamainari dagokionez, bost distrito hartzen ditu eta 300km-ko bide sarea dituelarik.

Parke natural honetan hiru sarrera nagusi daude, bakoitzak bere tenplu budista duelarik. Daewonsa tenpluak ekialdeko sarrera markatzen du, Hwaeomsa tenpluak mendebaldekoa eta Ssanggyesa tenpluak hegoaldekoa. Ibilbide asko daude gailurrera heltzeko, baina ohikoan ekialdeko sarreratik mendebaldekoa egiten du. 45 km-koa da, hiru egunetan egiten da eta gauak aterpe askotan egiteko aukera dago.

### Cheonwangbong (1915 m)


#### FITXA TEKNIKOA

**Ibilbidea:** Ez da zirkularra. 43,2 km-ko luzera, 3 etapatan burutua.

- 1. etapa:** **Abiapuntua:** Yupyeong herria (403 m).  
**Amaiera:** Jangteomok aterpea (1612 m).  
**Desnibela:** 1700 m gora eta 150 m behera.  
**Denbora eta luzera:** 9 ordu; 12 km.
- 2. etapa:** **Abiapuntua:** Jangteomok aterpea (1612 m).  
**Amaiera:** Nogodan aterpea (1447 m).  
**Desnibela:** 1100 m gora eta 800 behera.  
**Denbora eta luzera:** 13 ordu; 24,2 km.
- 3. etapa:** **Abiapuntua:** Nogodan aterpea (1447 m).  
**Amaiera:** Hwaeomsa tenplua (433 m).  
**Desnibela:** 1100 m behera.  
**Denbora eta luzera:** 2 ordu eta 45 min.; 7 km.

Daewonsako autobuseko parkinetik ordubeteko ibilbide bat egiten dut Yupyeong herrira heltzeko. Bidean, Daewonsa tenplu budista bisitatzen dut eta herrian gaua egin, biharko etapa luzeari ekin orduko.

**1. ETAPA:** Goiz-goizetik (07:15ean) bidean hasi eta, ia etapa osoan hegomendebalderako norabidean, oihan itxi bateko bidexka estu batetik egiten dut aurrera, Chibanmok aterpera (1393 m) heltzeko. Eguerdiko 12 eta laurdenak dira, 1000 m-ko desnibela gainditu behar direlako. Aterpean ordu erdiko



ARGAZKIAK GANZKA VICENTE URKIZU

### ■ Mendizaleak Jirisan parke naturalean

atsedenaldia hartzen dut. Aterpetik aurrera jarraitzen dut, eguraldi euritsua lagun, orain hegoalderako norabidean. Aterpetik, Cheonwangbong tontor nagusira beste 2 ordu eta 45 minutuko igoera gogorra geratzen zait. Tontorrean hamar minutu egin eta ziztu bizian egiten ditut eguneko azken 1,7 km-ak. Arratsaldeko lauretan heltzen naiz Jangteomok aterpera, han babesteko eta gaua egiteko, eguraldiak ez duelako barkatzen.

**2. ETAPA:** Bigarren eguneko etapa hau gogorrenetarikoa suertatzen da, 1300 eta 1650 m-ko koten artean gora eta behera egiten duen bide malkartsu batean zehar, eguraldi euritsuaz, arroka laban eta lokaztuetan. Jangteomok aterpetik goizeko zazpi eta erdietan atera eta Nogodan aterpera gaueko zortzi eta erdietan heltzen naiz, ia 25 km-ko etapa luzea osaturik. Bidean beste hiru aterpe daude: Seseok (1638 m, 09:05), Byeoksoryeong (1340 m, 12:30, ordu erdiko atsedendia) eta Yeonhacheon (1531 m, 14:35, ordubeteko atsedendia). Etapa honetako lehen zatian eta Yeonhacheonera heltzeko, mendebalderako norabidea da nagusi. Hemendik Nogodanera, ordea, hegomendebalderako. Yeonhacheonen ordubeteko atsedendia hartzen dut. Nire lehenengo asmoa, hemendik 3,6 km-tara dagoen Baemsagol aterpera joatea da, bertan gaua egiteko. Baina horra ordu eta erdiko bidea eginik heldu (17:15) eta aterperik ez! Ezinbestez, hemendik 7,8 km-tara dagoen Nogodan aterpera joatea erabakitzen dut. Ez dut *vivac* bat egin nahi, nahiz eta horretarako materiala aldean eroan. Azken zati hau amaitezina egiten zait. Nogodan pass lepora 20:15ean helduta, argi pare bat ikusten dut. Aita-sume batzuen frontalak dira eta haiekin batera egiten dut aterperako azken kilometroa, aldapan behera (20:30). Aterpeko harrera lekuan gaua negoziatu eta tirabira batzuen ondoren, bezeroez gainezka dagoen arren, badute niretzako lekua.

**3. ETAPA:** Azken etapa hau maldan behera arinean egiten duen bidea da. Hwaeomsa tenplu budista famaturaino heltzen da, parkeko mendebaldeko sarreran kokatua. Ia bide osoa hegoalderako norabidean egiten da, oihan eder batetik aurrera. Azken zatian, mendiko erreka basati bat gurutzatu behar da. Tenplutik autobus geltokira ordu erdiko ibilbidea dago.

## ■ HALLASAN PARKE NATURALA

Hallasan mendiko parke naturala Jejudo irlaren erdi-erdian kokatua dago. Hallasan izeneko ingurune hau 1970etik da parke naturala eta, gainera, UNESCOk izendaturiko biosferaren erreserba 2002tik. Udaberri partean haren ekosistemaren landareen koloreek Hego Koreako argazki famatuenetako bat





■ Hallasan sumendiaren igobidea

osaten dute. Hallasan mendiaren altuera 1950 m-koa da eta Hego Koreako garaiena da. Sumendi honetara hurbiltzen diren bideetatik bi bakarrik heltzen dira goiko puntara, ekialdeko Seongpanak eta iparraldeko Gwaneunsa izenekoak hain zuzen ere. Gainerakoak ipar-mendebaldeko Eorimok, hego-mendebaldeko Yeongsil eta hegoaldeko Donnae izenekoak Nambyeokbunggijeon kratererraino doaz eta hemendik Hallasango kratererra igotzea galerazita dago. Parke natural honetan dauden aterpe guztiak egunekoak dira, hau da, ezin da ez haietan ez eta parke osoan ere gaua egin. Gainera, sumendiaren perimetro osoan checkpoint-ak daude, ordu jakin batzuetan bakarrik egin baitaiteke aurrera, sasoiaren arabera.

### Hallasan (1950 m)

#### FITXA TEKNIKOAK

**Ibilbidea:** Ez da zirkularra. Oso ondo seinalizatuta.

**Abiapuntua :** Seongpanak (750 m).

**Amaiera:** Gwaneunsa (638 m).

**Desnibela:** 1200 m.gora eta 1300 behera.

**Igoerarako denbora eta luzera:** 3 ordu 15 min.; 9,6 km.

**Jaitsierarako denbora eta luzera:** 2 ordu 45 min.; 8,7 km.

Goizeko 09:15ean Seongpanak izeneko bideari ekiten diot mendebalderako norabideaz eta 750 m-ko garaieratik. Bidea oihanean barna ondo prestaturiko *trail* bat da. Ordu bat besterik ez dut behar, 1100 m-ko kotara heltzeko. Hemendik aurrera, 10:45ean pasatzen naiz 1300 m-ko kotatik eta, handik gutxira Jindallae eguneko aterpera heldu. 15 minutuko atsedena hartuta, berriro ekiten diot bideari 11:30ean. Puntu honetan dago bidearen checkpoint-a eta 13:00ak arte baizik ezin da aurrera jarraitu. 1700 m-ko kota 12:00etan gainditzen dut eta hemendik Hallasan tontorrera, ordu erdi bat besterik ez dut behar. Gaurko eguraldiak laguntzen du eta tontorretik dauden kraterreko ikuspegiak izugarri politak dira. Tontorrean ordu erdi bat egin, eta 13:00etan Gwaneunsa izeneko bideari ekiten diot iparralderako norabidean. Maldan beherako 45 minutuan mendi-erreak bat gainditzen duen 50 metroko zubi batera heltzen naiz. Honainoko bidea oso polita da, bai landaretza eta bai kratererako ikuspegia. 14:00etan heltzen naiz Tanna aterpera eta 14:45ean 1100 m-ko kotara. Aldapan behera joan ahala, oihana altuagoa da. 15:00etan bigarren zubi bat zeharkatzen dut eta 45 min. beranduago, parkeko iparraldeko sarrerara heltzen naiz. Hemendik, eta ordu erdiko atsedena hartu ondoren, ez dut gogorik autobuserako geltokira dauden 4 km-ak oinez egiteko eta Jesusira taxiz itzultzen naiz. □

### INTERESEKO DATU OROKORRAK

**Sasoia:** Igoera guztiak 2011ko abuztuan burutu dira.

**Eguraldia:** Euritsua izan ohi da eta giroko hezetasuna altua da oso.

**Estekak:** [www.koreaclimbs.blogspot.com](http://www.koreaclimbs.blogspot.com)

[www.spanish.visitkorea.or.kr](http://www.spanish.visitkorea.or.kr)

[www.english.knps.or.kr](http://www.english.knps.or.kr)

[www.eurowon.com/2010/10/subida-al-monte-hallasan-la-montana-mas.html](http://www.eurowon.com/2010/10/subida-al-monte-hallasan-la-montana-mas.html)

**Garraioak:** Oso onak eta merkeak, bai errepidekoak eta bai airekoak, hegaldi domestikoak gehienbat.

Seuletik Seoraksan parke naturalera: Seulgo Dong-Seoul bus terminaletik zerbitzu asko daude Sokcho herrira (hiru orduko bidaia). Hemendik eta autobusez ere, ordu erdiko bidaian Seorak-dong parkeko sarrerara helduko gara. Parkeko sarreran 2500 won ordaindu behar dira (trukean ia bina euro). Busanetik Jirisan parke naturalera: Hego Koreako bigarren hiria den Busandik, eta Seobu intercity bus terminaletik, ordu eta erdiko bidaian helduko gara Jinju herrira. Zerbitzu asko daude. Hemendik, eta ordubeteko bidaian, Daewonsako parkinerako autobus bat hartu behar da. Itzultzeko, Hwaemoantik, autobus bat hartuko dugu, Gwangju hirira bi orduko bidaian helduko dena. Parkeko sarrerarik ez da ordaindu behar.

Jejusitik Hallasan parke naturalera: Jejudoko hiriburua den Jejusitik, eta autobuseko terminallean, 1131 errepidetik Seogwipora doan autobusa hartu. Ordubeteko bidea eginik, Seongpanak geltokian jaitsi. Bueltarako, Gwaneunsako parkinetik ez dago autobus zerbitzurik eta, orduan, taxi bat hartu ahal dugu edo autobus geltokiraino dauden 4 km-ak oinez egin. Parkeko sarrera ez da ordaindu behar.

**Aterpeak:** Aterpeetan ez dago jantoki zerbitzurik. Norberak eroan beharko du jatekoa eta lo zakua. Mantak alokatu eta edariak nahiz zenbait snack eros daiteke (txokolatinak, gailetak...). Ibilbide osoan zehar larrialdietarako balizak daude. Sasoi honetan, aterpeak gainezka daude eta komeni da erreserba egitea. Horretarako, eta ingelesez, web gune propio bat dago ([www.english.knps.or.kr](http://www.english.knps.or.kr)).

**Kartografia:** Seoraksan eta Hallasan parketxeetan ibilbideetako mapak daude eta Jirisanerako, [koreaclimbs.blogspot.com](http://koreaclimbs.blogspot.com) helbidean, bi sektoreetako mapa eskura daiteke. Dena den, ibilbideak oso ondo seinalizatuta daude.

**Dibisa:** Hango txanponak *won* du izena eta honakoa da gutxigorabeherako trukea: 10000 won = 6,5 €

**Hizkuntza:** Bertako hizkuntzaz gainera, ingeleza da bigarrena, gazteek ohi darabiltena eta hirietan gehien entzuten dena.

**Baimena:** Hego Korean sartzeko turista europarrek hiru hilabetetarako baimena dute bisarik gabe. Aski da pasaportea.

**Osasuna:** Ez da txertorik edo inolako profilaxirik behar.

**Segurtasuna:** Segurtasuna eta bizitza kalitatea oso altuak dira Hego Korean.